

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2213

ERABAKIA, 2020ko apirilaren 8koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak garatzeko behar diren lankidetzak hitzarmenen arautegia onartzeko dena.

Gradu eta masterreko unibertsitate titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitortzea lortzeko Protokoloaren arabera beharrezkoa da lotura juridikoa egotea ikaslearen eta prestakuntza jardura egingo duen entitate edo erakundearen artean, eta ikasleak ordainsari bat (...) eta entitateko gainerako langileenaren pareko aseguru bat jasotzea (langabeziaren prestazioari dagokionez izan ezik, hori ez baita beharrezkoa). Gaur egungo legeriaren arabera, hori egin daiteke lan kontratu baten bidez edo unibertsitatearen eta entitatearen arteko hitzarmen baten bitartez, kanpoko praktika akademikoei buruzko legeriaren babespean, betiere erantzuna emanda agentziaren eskakizunei, ohiko praktiken programa baten ezaugarrietatik harago doazelako.

Edonola ere, beharrezkoa izango da unibertsitateak eta prestakuntza duala egingo den erakundeak hitzarmen bat sinatzea. Kontuan hartuta prestakuntza dualaren bitartez entitateak esku hartzen duela ikasleen prestakuntzan eta ikasleak ibilbide hori amaitzean entitateak lortzen duela bere premiei erantzuteko gai den titulatu eraginkor bat, beharrezkoa da unibertsitateak eta erakunde lankideak prestakuntza duala aurrera eramateko baldintzak zehaztea.

Unibertsitateko prestakuntza dualari buruzko lege esparrua osatzen du, besteak beste uztaillaren 11ko 592/2014 Dekretuak, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak. Horrez gain, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktiken Arautegiak honako hau dio bigarren xedapen gehigarrian (Prestakuntza duala kanpoko erakundeetan): Prestakuntza dualaren esparruan UPV/EHUko ikasleek enpresetan prestakuntza ibilbideak egin behar badituzte kanpoko praktiken hitzarmen baten baitan, praktika horiek arautegi honetan ikasketen ofizialen curriculumeko praktikei buruz ezarritakoaren arabera arautuko dira, UPV/EHUko Prestakuntza Duala arautzen duten gainerako araudiak albo batera utzi gabe.

Bestalde, aintzat hartu behar da, baita, lankidetzak hitzarmenak tramitatu behar direla Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegiko 15. artikuluari jarraituta (2009ko maiatzaren 26ko EHAA). Arautegi espezifiko hau onartuta, gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak garatzeko hitzarmenak tramitatu eta sinatuko dira arautegi horretan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegiko 25. artikuluko f) atalaren babespean.

Proposamen hau 2020ko martxoaren 25ean aurkeztu zitzaion Gradu Batzordeari, eta martxoaren 26an Gradu Batzordeari; eta organo biek arautegia onartu eta Gobernu Kontseiluari helaraztea onetsi zuten. Hori guztia kontuan hartuta Estatutuek eskumena ematen dietela Gradu Batzordeari eta Graduondoko Batzordeari, 88.b) eta 90.b) artikuluetan, hurrenez hurren, bakoitzak bere arloko irakaskuntzak antolatu eta gestionatzeko arautegiak onartzeko proposamenak egiteko Gobernu Kontseiluari. Kontuan izan behar da, halaber, UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (2017-02-03ko EHAA), non zehazten den zein gairen eskumenak dagozkion Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloari.

2020ko ekainaren 8a, astelehena

Adierazitakoagatik guztiagatik, eta aipatutako arauak betetzeko, eta Gobernu Kontseiluak apirilaren 2ko ezohiko bileran onartutakoaren babesean, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen proposamenez, hona Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek hartutako

ERABAKIA

Onartzea UPV/EHUko gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak garatzeko behar diren lankidetzaren hitzarmenen arautegia, eranskinean jasota dagoen moduan.

Leioa, 2020ko apirilaren 8a.

Errektorea,
NEKANE BALLUERKA LASA.

Idazkari nagusia,
PEDRO MARÍA IRIONDO BENGOA.

UPV/EHUKO GRADU ETA MASTERRETAN PRESTAKUNTZA DUALEKO PROGRAMAK GARATZEKO BEHAR DIREN LANKIDETZA HITZARMENEN ARAUTEGIA

2017ko ekainaren 6an Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen «I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022 Euskal Estrategia». Haren helburuak dira, batetik, bikaintasun zientifikoari eta bikaintasun hori enpresaren eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza sortu eta transferitzea eta, bestetik, gaitasun handietako giza kapitala, enpresa-eremuaren premiei aplikatu eta egokitutako osagai batekin, prestatzea. Protokoloan ekintza batzuk zehazten ziren bi helburu horiek betetzeko, besteak beste, unibertsitate eta enpresen aipua definitzea gradurako, gradu-ondokorako eta doktoretzarako.

- Gradu eta gradu-ondoko aipu duala;
- Gradu eta gradu-ondoko aipu i-duala;
- Industria-doktoretzako programaren aipua;

Hortik abiatuta, 2017ko urriaren 9an Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako (Unibasq) Aholku Batzordeak onartu zuen Gradu eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko Protokoloa. Unibasqen protokolo horretan zehazten da zein irizpide bete behar dituzten RUCTen inskribatuta dauden titulazioek prestakuntza dualaren aitortpena jasotzeko.

Bestalde, 2018ko uztailaren 12ko Erabakiaren bidez, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2018-2021erako Plan Estrategikoa onartu zuen. Haren helburuetako bat da Baldintzak sortzea, ikasleen enplegarritasuna bultzatzeko. Horretarako, honako ekintza hau zehazten du: Ikaskuntza testuinguru profesional errealean bultzatzea, gradu eta graduondoko prestakuntza dualaren bidez, eta praktikak, Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak eta doktorego tesiak egi-tea, administrazio publikoen, enpresen eta gizarte erakundeen lankidetzaz.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da arautegi bat egitea, bertan garbi zehazteko zein eduki izan behar duten unibertsitateak erakundeekin sinatu beharreko hitzarmenenak, eta zein izango den hitzarmenak tramitatu, onartu eta sinatzeko prozedura.

Unibasqen protokoloan bertan adierazten denez, gai hau gobernatzen duen legea da uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituena. Izan ere, protokoloaren arabera, titulazio batek prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko, beharrezkoa da lotura juridikoa egotea ikaslearen eta prestakuntza jarduera egingo duen entitate edo erakundearen artean, eta ikasleak ordainsari bat (...) eta entitateko gainerako langileenaren pareko aseguru bat jasotzea (langabeziaren prestazioari dagokionez izan ezik, hori ez baita beharrezkoa). Gaur egun, hori egin daiteke lan kontratu baten bidez edo unibertsitatearen eta entitatearen arteko hitzarmen baten bitartez, kanpoko praktika akademikoei buruzko arautegiaren babespean. Agentziaren eskakizunak bete behar dira, jakina, eta horiek praktika programa arruntan ezaugarrietatik harago doaz, agentziak eskatzen baitu entitatea edo erakundea ez [izatea] bertan jarduera praktikoak egiten dituzten ikasleen hartzaile soila; aitzitik, agente aktiboa [izan behar du] titulazioan eta irakatsi eta ikasteko jardueretan.

Horren inguruan, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiak honela dio bere bigarren xedapen gehigarrian: «Prestakuntza duala kanpoko erakundeetan. Prestakuntza dualaren esparruan UPV/EHUko ikasleek enpresetan prestakuntza ibilbideak egin behar badituzte kanpoko praktiken hitzarmen baten baitan, praktika horiek arautegi honetan ikasketa ofizialen curriculumeko praktikei buruz ezarritakoaren arabera arautuko dira, UPV/EHUn Prestakuntza Duala arautzen duten gainerako araudiak albo batera utzi gabe».

Kontuan hartuta prestakuntza dualaren bitartez entitateak esku hartzen duela ikasleen prestakuntzan eta ikasleak ibilbide hori amaitzean entitateak lortzen duela bere premiei erantzuteko gai den titulatu eraginkor bat, beharrezkoa da unibertsitateak eta erakunde lankideak prestakuntza duala aurrera eramateko baldintzak zehaztea. Elkarlan horretan beti izan beharko dute xede ikaslearen prestakuntza integrala. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte ikasketak eta lana bateragarriak izateko edukiari nahiz ordutegiari dagokionez, eta ikasle langileei jarraipena egin ahal izateko, jarraipen horretan parte hartzen dutela hala ikasle langileak berak, nola unibertsitateak eta entitateak.

UPV/EHUko gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak garatzeko egin behar diren lankidetzak hitzarmenak arautegi honen arabera tramitatuko dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegiko 25. f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

I. KAPITULUA

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio eremua.

Unibertsitateko zenbait gradu eta masterrek prestakuntza dualaren aitorpena jasotzen dute Euskal Unibertsitate Sistemen Kalitate Agentziaren (Unibasq-en) eskutik, horretarako dagoen protokoloa aplikatuta. Titulazio horietan beharrezkoa da unibertsitateak eta prestakuntza dualeko programan parte hartuko duten entitateek hitzarmen bana sinatzea. Arautegi honen helburua da zehaztea hitzarmenok zein baldintza bete behar dituzten.

Era berean, hitzarmenok tramitatu eta sinatzeko prozedura ere arautzen da bertan.

2. artikulua.– Prestakuntza dualeko programak.

1.– Arautegi honen ondorioetarako, prestakuntza dualeko programetan ikasleek programan parte hartzen duen erakunde batean, edo harekin lankidetzan, egin behar dituzte ikasketak, osoan edo partez.

Prestakuntza dualeko programan gradu edo master amaierako lana entitate edo erakundearen egin behar da, bertako langileen zuzendaritza edo zuzendarikidetzaren pean, eta UPV/EHUko arautegiei men eginez.

2.– Unibasqeko protokoloak eskatzen du ikaslearen eta erakunde edo entitatearen artean lotura juridiko bat egotea, eta horren bidez ikasleak ordainsari bat jasotzea eta entitateko gainerako langileenaren pareko aseguru bat izatea (langabeziaren prestazioari dagokionez izan ezik, hori ez baita beharrezkoa).

3. artikulua.– Lankidetzak hitzarmenak.

1.– Prestakuntza dualeko programa bat egiteko, beharrezkoa da unibertsitateak eta parte hartzen duen entitate bakoitzak lankidetzak hitzarmen bat sinatzea, non bakoitzaren betebeharrak ezartzen diren,

2.– Ikaslearen eta erakundearen arteko lotura legala zein den, dokumentu desberdinak sinatu beharko dira:

2.1.– Ikasleak prestakuntza duala egiten duenean enpresa edo erakundearekin lan kontratua izanda, unibertsitateak eta erakunde edo enpresak hitzarmen bat egin beharko dute, zehazteko bakoitzak hartuko dituen konpromisoak UPV/EHUko ikasle langileak erakundearen prestakuntza dualeko programa egiteko.

Hitzarmena arautegi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan beharko da. Era berean, II. eranskineko prestakuntza proiektua eta III. eranskineko eginkizunen plana bete beharko dira.

2.2.– Ikasleak prestakuntza duala egiten duenean enpresan edo erakundean kontraturik eduki gabe, unibertsitateak eta erakunde edo enpresak hitzarmen bat sinatu beharko dute, bertan zehazteko zein baldintzaren arabera egingo duen ikasleak programa entitate horretan prestakuntza jardueren bidez. Hitzarmen hau UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren menpe egongo da, haren bigarren xedapen gehigarriaren arabera («Prestakuntza duala kanpoko erakundeetan»).

Hitzarmena arautegi honen IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan beharko da. Era berean, V. eranskineko prestakuntza proiektua eta VI. eranskineko eginkizunen plana bete beharko dira.

3.– Graduak Batzordeak eta Graduondoko Batzordeak eguneratu eta aldatu ahal izango dituzte arautegi honi erantsitako hitzarmen ereduak eta haien eranskinak.

4. artikulua.– Prestakuntza dualeko hitzarmenaren tramitazioa.

1.– UPV/EHUko gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak antolatu eta garatzeko egin beharreko lankidetzak hitzarmenak tramitatuko dira arautegi honen arabera, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegiko 25.f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

2.– Prestakuntza dualeko programa bultzatzen duen ikastegiaren ardura izango da entitate(ar)ekin hitzarmena tramitatu eta sinatzea.

Hitzarmenak ikastegiko dekanok edo zuzendariak sinatuko ditu, edo hark zeregin hori eskuordetu dion dekanorde edo zuzendariordeak, nahiz eta, egokitzen jotzen denean, errektoreak ere sinatu ahal izango dituen.

Hitzarmenak jarduerak hasi aurretik sinatuko dira, eta gero prestakuntza dualeko programa sustatu duen ikastegian artxibatuko dira, unibertsitateak xedatzen duen moduan.

Zuzendariak edo dekanok venia docendia emango die erakunde lankideko tutoreei. Hori egiaztatzeko, tutoreei VII. eranskineko ziurtagiri bana emango zaie, zuzendariak edo dekanok sinatua, edo zeregin hori eskuordetu zaion zuzendaritza edo dekanotza taldeko kideak.

3.– Hitzarmena bat badator ezarritako ereduarekin, horretarako ahalmena eman zaion pertsonak sinatu ahal izango du, aurreko atalean adierazitako legez.

Hitzarmena ez baletor bat onartutako ereduarekin, ikastegiak egiaztatu beharko du edukia bat datorrela Unibertsitatearen Protokoloarekin (alegia, Gradu eta masterreko unibertsitate titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitorpena lortzeko Protokoloarekin), kanpoko praktika akademikoen araudiarekin hala balegokio, eta aplikatu beharreko gainerako arautegiekin, eta aurretiko txostena eskatuko dio Graduak eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeari. Behin aldeko txostena eskuratuta, hitzarmena sinatzeko ahalmena duen pertsonak dokumentua izenpetu ahal izango du, aurreko atalean adierazi bezala.

AZKEN XEDAPENA.—Arautegia indarrean sartzea eta aurretik sinatutako hitzarmenen indarraldia.

Arautegi hau aplikatuko zaie bera EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera UPV/EHUko gradu eta masterretan prestakuntza dualeko programak garatzeko sinatzen diren lankidetzak hitzarmen guztiei.

Arautegi hau baino lehen sinatutako hitzarmenek indarrean jarraituko dute beren testuetan adierazitakoaren arabera.

I. ERANSKINA

Lankidetz hitzarmena, UPV/EHUko ikastegi baten, erakunde baten eta ikasle-langile baten artekoa, prestakuntza dualeko programa bat egitekoa.

Ikastegia:.....

Erakundea:.....

Ikasle langilea:

Lekua eta data:

Ikastegia:

Ikastegiko ordezkariaren izen-deiturak:.....

Kargua ikastegiko zuzendaritza edo dekanotzan:.....

Erakundea:

Erakundeko ordezkariaren izen-deiturak:.....

NAN zk.: Kargua:

Ikasle langilearen izen-deiturak:

NAN zk.:..... Gradu edo masterra

Honako hau ADIERAZI DUTE:

Prestakuntza dualaren bidez, enpresak ikasle langilearen prestakuntzan laguntzen du, eta ibilbide horren amaieran tituludun eraginkor bat lortzen du, enpresaren premia eta beharrei erantzuteko gai dena.

Horretarako, aldeek zehaztu behar dituzte prestakuntza dualak izango dituen baldintzak, betiere ikasle langilearen prestakuntza integrala xede izanik. Beraz, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte ikasketak eta lana bateragarriak izateko edukiari nahiz ordutegiari dagokionez, eta ikasle langileei jarraipena egin ahal izateko, jarraipen horretan parte hartzen dutela hala ikasle langileak berak, nola unibertsitateak eta entitateak.

Hori lortzeko, aldeek honako klausula hauek adostu dituzte:

KLAUSULAK

1.– Helburua.

Hitzarmen honen helburua da zehaztea alde bakoitzak hartuko dituen konpromisoak UPV/EHUko ikasle langileak prestakuntza dualeko programa egin dezan erakundean.

2.– Erakundeko egonaldiaren baldintzak.

1) Ikasle langilearen eta erakundearen arteko harremana lan kontratu baten bidez gauzatuko da, ikasleari aukera emango diona «parte hartzeko enpresa eta unibertsitatearen arteko prestakuntza DUALeko prozesu batean, non, beteko dituen zereginen bidez, esperientzia praktikoa bereganatuko duen, eta enpresaren benetako premietarako egokia».

Ikasle langilearen eta enpresaren arteko lan harreman dual hau, gainerako langileena bezala, egongo da Langileen Estatutuaren, enpresari dagokion hitzarmen kolektiboaren eta gainontzeko lege xedapenen menpe.

2) Jarduera egingo den lekua (tokia/udala/herrialdea):

.....

3) Egonaldiaren iraupena (zehaztu ahal balitz) eta arduraldia (ordu kopurua):

.....

4) Enpresak konpromisoa hartzen du langileari baimena emateko lanetik falta dadin azterketak egiteko, alde biek adostuko dituzten baldintzetan.

5) Enpresak konpromisoa hartzen du, ahal den heinean, ikasle langileari baimena emateko lanetik falta dadin bestelako zereginak egiteko, behar bezala justifikatutako arrazoi akademikoak direla eta.

6) Egonaldiaren gainerako baldintzak ikasle langilearen eta enpresaren arteko lan harremanetik eratorritakoak izango dira.

Lan harreman hori, betiere, bateragarria izango da ikasle langileak unibertsitatean egin beharreko prestakuntza akademikoarekin.

7) Ikasle langilearen eta UPV/EHUren arteko harremana akademikoa da huts-hutsean, eta ez dakar, inolaz ere, lan harreman bati dagokion eskubide edo betebeharririk.

Lan kontratua deuseztatuko balitz ikasle langileari ez dagozkion arrazoiengatik, unibertsitateak bermatuko dio graduako titulua lortzeko behar dituen kredituak egiteko aukera.

8) Jarduerak egiteko edo eguneroko zereginetan erabiliko den hizkuntza nagusia izango da.

3.– Prestakuntza dualeko programaren edukia.

1) Prestakuntza dualaren helburua da ikasle langileak garatzea bere profil profesionalari dagozkion eta inguruko enpresen premietarako egokiak diren gaitasunak. Hau da, ikaslea profesionalizatzea eta ingurune sozio-ekonomiko batean txertatzea da prestakuntza dualaren xedea.

Zehazkiago, prestakuntza dualaren bitartez, ikasle langileak graduako titulazioko gaitasunak garatu ahal izango ditu, neurri handiago edo txikiagoan, entitatean betetzen dituen zereginen arabera.

2) Eskuratu beharreko gaitasunak eta egin beharreko jarduera edo eginkizunak zehaztuko dira prestakuntza proiektuan (I. eranskina) edo eginkizunen planean (II. eranskina), prestakuntza dualeko ikasketa planeko irakasgai edo gai bakoitzaren hasieran.

3) Erakunde lankideak bermatuzten du behar diren instalazio eta bitartekoak dituela ikasle langileak gaitasunak gara ditzan prestakuntza dualeko programan aurreikusitako mailan, eta zehaztuko du gehienez zenbat ikasle langile har ditzakeen.

4.– Prestakuntza dualeko programako batzorde mistoa.

1) Batzorde misto parekide bat osatuko da unibertsitateko eta erakundeko ordezkariekin. Batzordeko kideek batzordeko burua izendatuko dute beren artean.

2) Batzorde Mistoak, gutxienez delata, bilera bat egingo du urtean eta bilera guztien akta egingo du.

3) Batzordeak eginkizun hauek izango ditu gutxienez:

a) Titulu edo ibilbide duala diseinatzea, hau da, prestakuntza proiektua egitea eta gradu edo master amaierako lanetarako gai posibleak proposatzea.

b) Erakundeko jarduerak eta ikasgelan lantzen diren edukiak koordinatu, bateratu eta gainbegiratzeko mekanismoak ezartzea.

c) Prestakuntza dualeko programan zehar bildutako adierazleen datuak, gorabeherak eta ebidentziak analizatzea.

d) Bermatzea ikasle langileari jarraipena egiten zaiola irakaskuntza-ikaskuntza dualeko prozesuan.

e) Hitzarmenaren kontrol eta jarraipena egitea eta hura interpretatu eta gauzatzean sor litezkeen gorabeherak konpontzea.

5.– Unibertsitateko tutore akademikoa.

UPV/EHUko fakultateak edo eskolak tutore akademiko bat izendatuko du gutxienez, prestakuntza eta profil egokiduna.

Honako hauek izango dira tutore akademikoaren eskubideak:

a) Jarduera akademikoa aitortzeko, unibertsitateak ezartzen dituen baldintzetan.

b) Titulazioaren ardura duen ikastegitik informazioa jasotzea prestakuntza dualeko programaz eta ikasle langileak erakundearen egingo duen egonaldiaren baldintzetan.

c) Erakunderako sarbidea izatea bere eginkizunak betetzeko.

Halaber, funtzio hauek izango ditu:

- a) Prestakuntza proiektua normaltasunez garatzen dela bermatzea.
- b) Prestakuntza proiektuaren jarraipena egitea erakundean, eta horretarako bertako tutorearekin koordinatzea.
- c) Erakundean gauzatutako prestakuntza proiektua ebaluatzea, behin erakundeko tutorearen amaierako txostena jaso eta gero.
- d) Gradu edo Master Amaierako Laneko zuzendarikide izatea, hala badagokio.
- e) Isilpean gordetzea tutore gisa eskuratutako edozein informazio.
- f) Prestakuntza proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gorabeheren berri ematea Batzorde Mistoari.

Tutore akademikoak prestakuntza jasoko du erakundean garatuko den prestakuntza dualaren ereduaz, titulazioaren ardura duen ikastegiak antolatuko dituen ikastaro edo jardunaldien bidez.

6.– Erakundeko tutorea.

Enpresak prestakuntza dualeko tutore bat izendatuko du gutxienez, eta titulazioaren ardura duen ikastegiak onespena eta venia docendi –a (III. eranskina) eman beharko dizkio. Analogiaz, venia docendi-a emateko prozedura izango da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian zehaztutakoa.

Erakundeko tutorea entitate horri loturiko pertsona bat izango da, tutoretza eraginkor bat egiteko behar den lan esperientziaren eta jakintzaren jabe dena. Erakundeko tutorea eta unibertsitatekoa ezin izango dira pertsona bera izan.

Erakundeko tutoreak prestakuntza jasoko du bertan egingo den prestakuntza dualaren ereduaz, titulazioaren ardura duen ikastegiak antolatuko dituen ikastaro edo jardunaldien bidez.

Erakundeko tutoreak eskubide hauek izango ditu:

- a) Ikastegiak bere jardunaren aitortpena egin diezaion, aldeztatik eskaria eginda.
- b) Unibertsitaterako sarbidea izatea, bere zereginetarako behar dituen euskarriak eta informazioa eskuratzeko.

Halaber, eginkizun hauek izango ditu:

- a) Ikasle langileei harrera egitea eta egin beharreko jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta prestakuntza proiektuaren gauzapena bideratzea eta kontrolatzea, elkarrenganako errespetua eta ikaskuntzarekiko konpromisoa oinarri izanik.
- c) Ikasle langileari erakundearen funtzionamenduaren eta arauen berri ematea, batez ere segurtasunari eta laneko arriskuei dagokienez.
- d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea hitzarmen honen bitartez ezarritako jarduerak aurrera eramateko, eta Batzorde Mistoari proposatzea prestakuntza proiektuan beharrezko gerta daitezkeen moldaketak. Halaber, programan zehar sor litezkeen gorabeherak konpontzea eta haien berri ematea batzordeari, eta azterketak egiteko baimenen kontrola eramatea.

- e) Ikasle langileak erakundean betetako prestakuntza proiektuari buruzko amaierako txostena egitea, ebaluatua izan dadin.
- f) Ikasle langileari ematea prestakuntza proiektua egiteko ezinbestekoak diren materialak.
- g) Ikasle langilea bultzatzea berrikuntza, hobekuntza eta enpresa ekimeneko proposamenak egitera, eta horretarako erraztasunak ematea.
- h) UPV/EHUko tutoreari erakundera sartzeko bidea ematea, bere zereginiei lotutako helburuak bete ditzan.
- i) Isilpean gordetzea erakundeko tutore gisa ikasle langileaz eskuratzen duen informazioa.
- j) Erakundean dagoen bitartean ikasle langileari laguntza eta sostengua ematea bere zereginak betetzean sortzen zaizkion arazo profesionalak konpontzeko.

7.– Gradu edo master amaierako lana zuzentzea.

Erakunde lankideko pertsona bat Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendari edo zuzendarikidea izango da. Titulazioaren ardura duen ikastegiak izendatuko du, erakundearekin adostuta.

- 1) Gradu ikasketen kasuan, unibertsitateko irakasle bat izan beharko du zuzendarikide, graduan irakaskuntza duen sail batekoa edo gradua ematen duen ikastegiari atxikia.
- 2) Masterren kasuan, zuzendaria doktorea ez bada, masterreko irakasle doktore bat izan beharko du zuzendarikide.
- 3) Lana elkarlanean zuzentzen bada, zuzendarikide biak koordinatu egingo dira, jarduerak hasi baino lehen eta irakaskuntza gidan zehaztutako edukiei atxikita.
- 4) Ikastegiak zehaztuko ditu lanetan jorra daitezkeen gaiak eta lanak idazteko eta defendatzeko erabil daitezkeen hizkuntzak, erakunde lankidearekin ados jarrita.
- 5) Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendari edo zuzendarikideari eginkizun hauek dagozkio, UPV/EHUko zuzendarikidearekin koordinatuta, hala dagokionean:
 - Ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea.
 - Ikasleari jarraibideak ematea lana egiteko.
 - Ezarritako helburuak betetzen direla bermatzea.
 - Lanari jarraipena egitea eta defentsaren aurretik idatzizko txostena egitea eta ikasle langileari ematea.
- 6) Fakultateak aitortuko du GRAL edo MALeko zuzendariak egindako jardun akademikoa.

8.– Ikasle langilearen konpromisoak.

.....
 ikasle langileak bere gain hartzen ditu hitzarmen honetatik eta bera gauzatzetik sortzen diren konpromiso guztiak, eta ardura handiaz jokatu du uneoro, bai enpresan eta bai prestakuntza dualeko programan, bereziki honako konpromiso hauek hartuz:

A) Enpresan:

.....
 ikasle langileak konpromisoa hartzen du enpresaren barne arautegia betetzeko, bai eta segurtasun neurriak ere, hala orokorrak nola enpresaren arau espezifikoak, eta ematen zaizkion zereginak egiteko.

Jakin badaki, eta onartzen du, esandako arauak edo bere kontratutik eratorritako beste batzuk arratzen baditu, horrek ekar dezakeela, besteak beste, enpresarekiko lan harremana haustea.

B) Prestakuntza dualeko programan:

Ikasle langileak konpromisoa hartzen du UPV/EHUko ikasle langile izateak dakartzan betebeharrak betetzeko, unibertsitatearen araubidean jasotzen diren baldintzetan eta ondorioekin.

9.– Ikasketa amaierako lanen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak.

Gradu edo master amaierako lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikaslearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, unibertsitateak onartutako dokumentuan (IV. eranskina) jaso beharko da esplizituki, eta ikasleak dokumentu hori sinatu beharko du.

10.– Hitzarmena interpretatzeko araubidea.

Hitzarmen hau administratiboa da eta, beraz, bere interpretazio eta garapenerako, dagokion antolamendu juridiko administratiboari jarraituko zaio.

Hitzarmen honek edo bera betetzeak sor ditzakeen arazoak hitzarmen honetako laugarren klausulan aipatutako Batzorde Mistoak ebatziko ditu.

11.– Indarraldia.

Zuzenbidearen arabera hitzarmena deuseztatzea ekar dezakeen ezer gertatu ezean, hitzarmena indarrean egongo da
 ikasle langilearen prestakuntza dualeko programak dirauen bitartean.

Lekua eta eguna:

UPV/EHUko IKASTEGIA

ERAKUNDEA

IKASLE LANGILEA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

Izen-deiturak.: _____

Izen-deiturak.: _____

Izen-deiturak.: _____

Data: _____

Data: _____

Data: _____

II. ERANSKINA

20...../20..... ikasturtea

PRESTAKUNTZA DUALEKO PROGRAMAKO PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

(Ikasleak erakundean zenbat irakasgai egingo dituen, horrenbete proiektu bete beharko dira, ikasturtearen arabera ordenaturik.)

1.– Tituluaren ardura duen ikastegia:

2.– Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa:

3.– Programan parte hartuko duen ikaslea:

Ikaslearen izen-deiturak:

4.– Ikasleak prestakuntza proiektua beteko duen erakundearen izena eta lekua:

5.– Prestakuntza dualeko programan landuko den irakasgaiaren izena:

6.– Prestakuntza dualeko tutorea UPV/EHU:

Tutore akademikoaren izen-deiturak:

7.– Prestakuntza dualeko tutorea erakundean:

Erakundeko tutorearen izen-deiturak eta kargua:

8.– Ikasleak erakundean egingo duen egonaldiaren egutegia:

hasiera (uuuu/hh/ee).....; amaiera:(uuuu/hh/ee).....

9.– Ikaslearen ordutegia erakundean:

10.– Ikaslearen arduraldia prestakuntza dualeko erakundean: (ordu guztira)

11.– Erakundeko tutoreak ikasleari eskainiko dion denbora:
(ordu guztira).

12.– Prestakuntza programaren hezkuntza helburuak:

Ikasle langileak erakundean bereganatu beharreko gaitasunak:

1.–
2.–
3.–
(....)

13.– Ebaluazio sistemak

1.–
2.–
3.–
(....)

14.– Erakundean egin beharrekoen deskribapena:

1.–
2.–
3.–
(....)

15.– Prestakuntza proiektua zer hizkuntzatan beteko den erakundearen:

Euskara
 Gaztelania
 Ingelesa
 Frantsesa
 Beste bat (zehaztu):

16.– Ikasleen datuen babesa.

Erakundearen prestakuntza dualean diharduten ikasleen datuak hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko. Ikasleak baimena ematen die UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak helburu horietarako laga eta trata ditzaten.

17.– Konfidentzialtasuna.

Ikasleak konpromisoa hartzen du isilpean gordetzeko erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala, bai egonaldian zehar eta bai gero. Ikastegiak edo masterreko Batzorde Akademikoak zehaztutako kasu berezietan, titulazioaren ardura duen ikastegiak eskatu ahal izango dio ikasleari konfidentzialtasuna bermatzeko dokumentuak sina ditzan.

18.– Ikasleak baimena ematen die UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak laga eta trata ditzaten I. eranskineko hamabosgarren atalean adierazten den bezala.

IKASTEGIAREN IZENEAN:

ENTITATEAREN IZENEAN:

IKASLEA

PRESTAKUNTZA DUALEKO
UPV/EHUko TUTOREA

PRESTAKUNTZA DUALEKO
ERAKUNDEKO TUTOREA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

Izen-deiturak: _____

Izen-deiturak: _____

Izen-deiturak: _____

Data: _____

Data: _____

Data: _____

III. ERANSKINA

20___/20___ ikasturtea

GRADU EDO MASTER AMAIERAKO LANA EGITEKO ETA ZUZENTZEKO EGINKIZUNEN
PLANA

(Ikaslea lana egiten hasi deneko ikasturteari dagokio).

1.– Tituluaren ardura duen ikastegia

2.– Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa.

3.– Programan parte hartuko duen ikaslea:

Ikaslearen izen-deiturak:

4.– Gradu edo Master Amaierako Lana egingo den erakundea edo lekua.

5.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren izena:

6.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren erakundeko zuzendarikidea, eta erakundean betetzen duen postua:

7.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren UPV/EHUko zuzendarikidea:

8.– Ikasleak erakundean egingo duen egonaldiaren datak: hasiera: (uuuu/hh/ee).....; amaiera: (uuuu/hh/ee).....

9.– Ikaslearen ordutegia erakundean:

10.– Erakundeko zuzendarikideak ikasleari eskainiko dion denbora: (ordu guztira)

11.– Gradu edo Master Amaierako Lana zein hizkuntzatan egingo den erakundean:

Euskara	<input type="checkbox"/>
Gaztelania	<input type="checkbox"/>
Ingelesa	<input type="checkbox"/>
Frantsesa	<input type="checkbox"/>
Beste bat (zehaztu)	<input type="checkbox"/>

12.– Ikasleen datuen babesa.

Erakundean prestakuntza dualean diharduten ikasleen datuak hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko. Ikasleak baimena ematen die UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak helburu horietarako laga eta trata ditzaten.

13.– Jabetza intelektual edo industrial:

Gradu edo master amaierako lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta, ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikaslearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, unibertsitateak horretarako onartutako dokumentuan jaso beharko da esplizituki, eta ikasleak dokumentu hori sinatu beharko du.

14.– Konfidentzialtasuna.

Ikasleak konpromisoa hartzen du isilpean gordetzeko erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala, bai egonaldian zehar eta bai gero. Ikastegiak edo masterreko Batzorde Akademikoak zehaztutako kasu berezietan, titulazioaren arduraren duen ikastegiak eskatu ahal izango dio ikasleari konfidentzialtasuna bermatzeko behar diren dokumentuak sinatu ditzen.

IKASTEGITIK:	ERAKUNDETIK:	IKASLEA
GRADU/MASTER AMAIERAKO LANAREN UPV/EHUko ZUZENDARIKIDEA	GRADU/MASTER AMAIERAKO LANAREN ERAKUNDEKO ZUZENDARIKIDEA	
Sinadura	Sinadura	Sinadura
Kargua: _____	Kargua: _____	
Izen-deiturak: _____	Izen-deiturak: _____	Izen-deiturak: _____
Data: _____	Data: _____	Data: _____

IV. ERANSKINA

Lankidetzaren hitzarmena, UPV/EHUko ikastegi baten eta erakunde baten artekoa, prestakuntza dualerako programa bat egitekoa.

Ikastegia:

Erakundea:

Lekua eta data:

Ikastegia: Ikastegiko
ordezkariaren izen-deiturak:
Kargua ikastegiko zuzendaritza edo dekanotzan:

Eta

Erakundea:
Erakunde ordezkararen izen-deiturak:
Kargua:

Bi aldeek, elkarri aitorturik honetarako behar den gaitasun legala, prestakuntza dualerako lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute, honako hauek betez: 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen; UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia; gradu amaierako eta master amaierako lanak arautzen dituzten UPV/EHUko arautegiak; eta unibertsitateko gainerako arautegi akademikoak.

Honako hau ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– UPV/EHUren helburuetako bat da «Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea». Ikasleen prestakuntza dualak eskatzen duena aztertuta, ikusi da erakunde lankideak behar diren baldintzak betetzen dituela prestakuntza mota hori egoki emateko, ikastegiak zehaztutako irizpideen arabera.

Bigarrena.– Erakunde lankideak adierazi du lagundu nahi duela ikasleen hezkuntza prozesuan prestakuntza dualaren bitartez, hartara, ibilbide horren amaieran pertsona tituludun eraginkor bat edukitzeko, enpresaren premia eta beharrei erantzuteko gai izango dena (azaldu erakundeak prestakuntza horren inguruan izan ditzakeen beste interes batzuk, hala badagokio).

Hirugarrena.– UPV/EHUK (titulazioaren izena)
titulazioa eskaintzen du, eta erakunde lankideak
sektore(et)an dihardu.

Laugarrena.– Prestakuntza dualeko programa jarduera hezigarri bat da, ikasleek erakunde batean egiten dutena unibertsitatearen eta erakundearen gainbegirada pean, zenbait gaitasun eskuratzeari begira. Haren bitartez, bai ikasleek eta bai prestakuntzaren arduradunek zehatzago jakin ahal izango dute ikasleak etorkizunean zein gaitasun beharko dituen. Gainera, ikasleak jardun profesionalerako prestatuko direnez, enplegarritasunean irabaziko dute, eta haien sormen, berrikuntza eta enpresa ekimena areagotu egingo dira. Horrek guztiak erantzuna emango dio ezagutzaren gizaratean oinarrituko den eraldaketa ekonomikoa eragiteko konpromisoari.

Bosgarrena.– Zehazki, prestakuntza dualeko programa mamitzen da titulazio baten ikasketa planaren edo ibilbide baten parte diren jarduera akademikoen bitartez.

Seigarrena.– Uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak, honela dio 7. artikuluan: «Para la realización de las prácticas externas, las universidades o, en su caso, las entidades gestoras de prácticas a ellas vinculadas, suscribirán Convenios de Cooperación Educativa con las entidades colaboradoras». Gauza bera jasotzen da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian ere.

Zazpigarrena.– Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituenak, 12. eta 15. artikuluetan dio unibertsitateko graduen eta masterren amaieran ikasleek Gradu Amaierako Lana edo Master Amaierako Lana egin beharko dutela, hurrenez hurren.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek honako klausula hauek adostu dituzte:

KLAUSULAK

Lehenengo.– Helburua.

Lankidetzaz hitzarmen honen helburua da arautzea zein baldintzatan egingo duten prestakuntza dualeko programa UPV/EHUko ikasleek erakunde lankidean prestakuntza jardueren bitartez, I. eta II. eranskinetan jasotzen diren xehetasunen arabera, eta men eginez uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuari eta UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiari, bai eta gradu amaierako eta master amaierako lanak arautzen dituzten UPV/EHUko arautegiei ere.

Bigarrena.– Prestakuntza dualeko programa egiteko lekua, modua eta baldintzak.

1.– Prestakuntza dualeko prestakuntza proiektu bakoitzean (I. eranskina) honako informazio hau jaso beharko da:

- Proiektua erakundearen gauzatzen hasiko den ikasturtea.
- Tituluaren ardura duen ikastegia.
- Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa.
- Prestakuntza dualeko programan parte hartuko duen ikaslearen datuak
- Prestakuntza proiektua gauzatu den erakundea eta lekua.
- Prestakuntza dualeko programako irakasgaia edo gaia.
- Prestakuntza dualeko proiektuko tutore akademikoa UPV/EHU.
- Prestakuntza dualeko proiektuko tutorea erakundearen.
- Prestakuntza proiektuaren egutegia, ordutegia eta arduraldia (ordu kopurua) erakundearen.

- Erakundeko tutoreak ikasleari eskainiko dion ordu kopurua.
- Ikasleak erakundean bereganatu beharreko gaitasunak.
- Ikasleak erakundean egin beharrekoak.
- Prestakuntza proiektua erakundean zein hizkuntzatan gauzatuko den.
- Ikasleak prestakuntza dualagatik jasoko duen zenbatekoa.
- Ikaslearen datuen babesari buruzkoak.
- Konfidentzialtasunari buruzkoak.

Prestakuntza proiektu bakoitza ikasleak, erakundeko tutoreak eta unibertsitateko tutoreak sinatu beharko dute.

2.– Gradu edo Master Amaierako Lana erakundean egiteko eta zuzentzeko eginkizunen planean (II. eranskina) honako hauek jaso beharko dira:

- Ikaslea Gradu edo Master Amaierako Lana egiten hasi den ikasturtea.
- Tituluaren ardura duen ikastegia.
- Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa.
- Prestakuntza dualeko programan parte hartuko duen ikaslearen datuak.
- Gradu edo Master Amaierako Lana egingo den erakundea eta lekua.
- Gradu edo Master Amaierako Lanaren izena.
- Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendari edo zuzendarikidea, erakundearen aldetik.
- Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendaria edo zuzendarikidea, UPV/EHUren aldetik. Dagokion arautegian zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.
- Gradu edo Master Amaierako Lana erakundean egiteko egutegia eta ordutegia.
- Gradu edo Master Amaierako Lanaren erakundeko zuzendari edo zuzendarikideak ikasleari eskainiko dion ordu kopurua.
- Gradu edo Master Amaierako Lanaren hizkuntza.
- Ikasleak prestakuntza dualagatik jasoko duen zenbatekoa.
- Ikaslearen datuen babesari buruzkoak.
- Jabetza intelektual edo industrialari buruzkoak.
- Konfidentzialtasunari buruzkoak.

Eginkizunen plan bakoitza ikasleak eta erakundeko eta unibertsitateko zuzendarikideek sinatuko dute.

Hirugarrena.– Erakunde lankidearen eta ikaslearen arteko harremana.

- 1.– Hau berez hezkuntzarako programa bat denez, ez du sortuko lan harreman bati dagokion betebeharririk, eta ez du inolaz ere ordezkaturako lanpostuen bidez bete behar den zerbitzua.
- 2.– Era berean, ikasketak amaitutakoan ikaslea erakunde lankidearen plantillan sartuko balitz, prestakuntza dualean erakundean egindako denbora ez da kontuan hartuko antzinasunerako, eta ez du ikaslea probalditik salbuetsiko, non eta kasuan kasuko hitzarmen kolektiboan ez den esplizituki besterik adierazten.

Laugarrena.– Prestakuntza dualeko programako Batzorde Misto.

- 1.– Batzorde misto parekide bat osatuko da unibertsitateko eta erakundeko ordezkariekin. Batzordeko kideek batzordeko burua izendatuko dute beren artean.
- 2.– Batzorde Mistoak, gutxien dela, bilera bat egingo du urtean eta bilera guztien akta egingo du.
- 3.– Batzordeak eginkizun hauek izango ditu gutxienez:
 - a) Titulu edo ibilbide duala diseinatzea, hau da, prestakuntza proiektua egitea eta gradu edo master amaierako lanetarako gaiak proposatzea.
 - b) Erakundeko jarduerak eta ikasgelan lantzen diren edukiak koordinatu, bateratu eta gainbegiratzeko mekanismoak ezartzea.
 - c) Prestakuntza dualeko programan zehar bildutako adierazleen datuak, gorabeherak eta ebidentziak analizatzea.
 - d) Bermatzea ikasleari jarraipena egiten zaiola irakaskuntza-ikaskuntza dualeko prozesuan.
 - e) Hitzarmenaren kontrol eta jarraipena egitea eta hura interpretatu eta gauzatzean sor litezkeen gorabeherak konpontzea.

Bosgarrena.– Unibertsitateko tutore akademikoa.

- 1.– Ikastegiak prestakuntza dualeko tutore akademiko bat izendatuko dio ikasleari, prestakuntza eta profil egokiak dituen, irakasgai edo gai bakoitzerako.
- 2.– Tutore akademikoak prestakuntza jasoko du erakundean egingo den prestakuntza dualaren ereduaz, titulazioaren ardura duen ikastegiak antolatuko dituen ikastaro edo jardunaldien bidez.

Seigarrena.– Unibertsitateko tutore akademikoaren eskubideak eta betebeharrak.

- 1.– Honako hauek izango dira tutore akademikoaren eskubideak:
 - a) Jarduera akademikoa aitortzeko, unibertsitateak ezartzen dituen baldintzetan.
 - b) Titulazioaren ardura duen ikastegitik informazioa jasotzea prestakuntza dualeko programaz eta ikasleak erakundean egingo duen egonaldiaren baldintzez.
 - c) Erakunderako sarbidea izatea bere eginkizunak betetzeko.
 - d) UPV/EHUko Ikaslen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian jasotako gainerako eskubideak.

2.– Hala berean, honako betebeharrak izango ditu:

- a) Prestakuntza proiektua normaltasunez garatzen dela bermatzea.
- b) Prestakuntza proiektuaren jarraipena egitea erakundean, eta horretarako bertako tutorearekin koordinatzea.
- c) Erakundean gauzatutako prestakuntza proiektua ebaluatzea, behin erakundeko tutorearen amaierako txostena jaso eta gero.
- d) Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendarikide izatea, hala badagokio.
- e) Isilpean gordetzea tutore gisa eskuratutako edozein informazio.
- f) Prestakuntza proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gorabeheren berri ematea Batzorde Mistoari.
- g) UPV/EHUko Ikaslen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian jasotako gainerako betebeharrak.

Zazpigarrena.– Erakundeko tutorea.

1.– Erakunde lankideak tutore bat izendatuko dio ikasle bakoitzari. Tutoreak prestakuntza jarduerak antolatuko ditu, prestakuntza proiektuari atxikiz eta unibertsitateko tutorearekin koordinaturik.

2.– Erakundeko tutorea entitate horri loturiko pertsona bat izango da, tutoretza eraginkor bat egiteko behar den lan esperientziaren eta jakintzaren jabe dena. Erakundeko tutorea eta unibertsitatekoa ezin izango dira pertsona bera izan.

3.– Titulazioaren ardura duen ikastegiak onespina eta venia docendi-a (III. eranskina) eman beharko dizkio erakundeko tutoreari, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian ezarritako prozedura betez.

4.– Erakundeko tutoreak prestakuntza jasoko du erakundean egingo den prestakuntza dualaren ereduaz, titulazioaren ardura duen ikastegiak antolatuko dituen ikastaro edo jardunaldien bidez.

Zortzigarrena.– Erakundeko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Erakundeko tutoreak eskubide hauek izango ditu:

- a) Lankidetzat aitor dakion, aurreko klausulako 3. atalean zehazten den bezala.
- b) Informazioa jasotzea ikasleen kanpoko praktiken arautegiaz, prestakuntza proiektuaz eta proiektua gauzatzeko baldintzez.
- c) Unibertsitaterako sarbidea izatea, bere zereginetarako behar dituen euskarriak eta informazioa eskuratzeko.

2.– Hala berean, honako betebeharrak izango ditu:

- a) Ikasleei harrera egitea eta egin beharreko jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta prestakuntza proiektuaren gauzapena bideratzea eta kontrolatzea, elkarrenganako errespetua eta ikaskuntzarekiko konpromisoa oinarri izanik.

- c) Ikasleari erakundearen funtzionamenduaren eta arauen berri ematea, batez ere segurtasunari eta laneko arriskuei dagokienez.
- d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea hitzarmen honen bitartez ezarritako jarduerak aurrera eramateko, eta Batzorde Mistoari proposatzea prestakuntza proiektuan beharrezko gerta daitezkeen moldaketak. Halaber, programan zehar sor litezkeen gorabeherak konpontzea eta haien berri ematea batzordeari, eta azterketak egiteko baimenen kontrola eramatea.
- e) Ikasleak erakundearen betetako prestakuntza proiektuari buruzko amaierako txostena egitea, ebaluatua izan dadin.
- f) Ikasleari ematea proiektua betetzeko behar duen prestakuntza osagarria.
- g) Ikasleari ematea prestakuntza proiektua egiteko ezinbestekoak diren materialak.
- h) Ikaslea bultzatzea berrikuntza, hobekuntza eta enpresa ekimeneko proposamenak egitera, eta horretarako erraztasunak ematea.
- i) UPV/EHUko tutoreari erakunderako sarbidea ematea, bere zereginei lotutako helburuak bete ditzan.
- j) Isilpean gordetzea erakundeko tutore gisa ikasleaz eskuratzen duen informazioa.
- k) Erakundearen dagoen bitartean ikasleari laguntza eta sostengua ematea bere zereginak betetzean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko.

Bederatzigarrena.– Gradu edo Master Amaierako Lana zuzentzea.

1.– Erakunde lankideko pertsona bat Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendari edo zuzendarikidea izango da. Ikastegiak izendatuko du, erakundearekin adostuta.

Graduko ikasketen kasuan, unibertsitateko irakasle bat izan beharko du zuzendarikide, graduan irakaskuntza duen sail batekoa edo gradua ematen duen ikastegiari atxikia.

Masterren kasuan, zuzendaria doktorea ez bada, masterreko irakasle doktore bat izan beharko du zuzendarikide.

2.– Lana elkarlanean zuzentzen bada, zuzendarikide biak koordinatu egingo dira, jarduerak hasi baino lehen eta irakaskuntza gidan zehaztutako edukiei atxikita.

3.– Ikastegiak zehaztuko ditu lanetan jorra daitezkeen gaiak eta lanak idazteko eta defendatzeko erabil daitezkeen hizkuntzak, erakunde lankidearekin ados jarrita.

4.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren zuzendari edo zuzendarikideari eginkizun hauek dagozkio, UPV/EHUko zuzendarikidearekin koordinatuta:

- Ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea.
- Ikasleari jarraibideak ematea lana egiteko.
- Ezarritako helburuak betetzen direla bermatzea.
- Lanari jarraipena egitea eta defentsaren aurretik idatzizko txostena egitea eta ikasleari ematea.

Hamargarrena.– Ikaslearen eskubide eta betebeharrak.

1.– Prestakuntza dualeko programan zehar ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

- a) Prestakuntza programan zehar tutoretzapean egotea, alde batetik unibertsitateko tutoreak gainbegiraturik, eta, bestetik, erakunde lankideko tutoreak gainbegiraturik.
- b) Gradu edo Mater Amaierako Lana zuzendu diezaioten, zuzendari batek bakarrik edo bi zuzendarikidek elkarlanean, betiere arautegiei jarraituz eta prestakuntza proiektuan zehaztutakoari atxikiz.
- c) Prestakuntza proiektuaren ebaluazioa egin diezaioten, kontuan hartuta berak, ikasleak, egin behar duen amaierako memoria, eta erakundeko tutoreak egin beharreko amaierako txostena.
- d) Erakunde lankidetik amaierako txostena jasotzea, non zehazki aipatuko den ikasleak zein jarduera egin duen, zenbat denboraz eta nolakoa errendimenduz. Ikasketa amaierako lanen kasuan, ikastegiak ezarrita daukan ereduari eutsi beharko zaio, halakorik baldin badauka.
- e) Erakundetik diru kopuru bat jasotzea prestakuntza dualaren truke.
- f) Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak izatea, gai horri buruzko legerian zehazten denaren arabera, ez baldi badu sinatu eskubideak lagatzeko edo eskualdatzeko dokumenturik (IV. eranskina).
- g) Erakunde lankidetik informazioa jasotzea segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araeuz.
- h) Bere prestakuntza eta jarduera akademikoekin eta ordezkaritza eta parte hartze zereginekin jarraitzea, erakunde lankideari behar besteko tartearekin jakinarazita.
- i) Desgaitasuna duten ikasleek beren esku izatea behar diren baliabideak tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko, eta prestakuntza proiektua berdintasunean betetzeko.
- j) Desgaitasuna duten ikasleek bateratu ahal izatea prestakuntza proiektua eta beren desgaitasun egoeratik sortutako edo hari lotutako jarduerak edo egoerak.

2.– Era berean, prestakuntza dualeko programan zehar, ikasleek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Unibertsitateko kanpoko praktiken arautegia betetzea.
- b) Prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, erakunde lankideak izendatutako tutorearen jarraibideei jaramon eginez, eta unibertsitateko tutorearen gainbegiradaren pean.
- c) Prestakuntza proiektua betetzen duen bitartean harremanetan egotea unibertsitateko tutorearekin, eta hari ematea sortzen zaion edozein gorabeheraren berri, bai eta hari aurkeztea ere eskatzen dizkion tarteko jarraipen dokumentu eta txostenak eta amaierako memoria.
- d) Gorabeheraren bat sortzen bazaio, eragina duena Gradu edo Master Amaierako Lana egiteko prozesuan, horren berri ematea erakundeko zuzendari edo zuzendarikideari.
- e) Erakunde lankidera joan eta jardunean hastea adostutako datan, prestakuntza proiektuan zehaztutako ordutegia betetzea eta men egitea erakundearen funtzionamendu araei, eta segurtasunerako eta laneko arriskuen prebentziorako araei.

- f) Prestakuntza proiektua betetzea eta arduraz egitea erakunde lankidearekin adostutako jarduerak, proiektuan markatutako ildoetara jarraituz.
- g) Prestakuntza proiektuaren amaierako memoria egitea eta, hala dagokionean, tarteko txostenak, eta tutore akademikoari aurkeztea.
- h) Isilpean gordetzea erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala, bai egonaldian zehar eta bai gero.
- i) Begirunea erakustea uneoro erakunde lankidearen politikari, eta UPV/EHUren izen ona zaintzea.
- j) Arautegietan jasota dauden beste guztiak.

3.– Aurreko atalean aipatutako betebeharrak huts eginez gero, programa bertan behera utzi ahal izango da amaiera data heldu baino lehen. Egoera hori gertatuz gero, UPV/EHUk edo erakundeak jakitun jarri beharko dute hitzarmen honetan ezarritako Batzorde Mistoan, eta hark erabaki beharko du, hamar eguneko epearen barruan, prestakuntza proiektua bertan behera behar utzi behar den ala ez.

4.– Ikaslea erakundetik falta ahal izango da azterketak egiteko, hiru egun lehenago erakundeko tutoreari eta unibertsitateko tutoreari justifikatuta. Bestelako arrazoi akademikoengatik falta behar izanez gero, ikasleak jakitun jarri beharko ditu unibertsitateko tutorea eta erakundekoa ahalik eta arinen, eta, edozelan ere, unibertsitateko tutorearen baimena behar izango du.

Hamaikagarrena.– Instalazioak eta baliabideak.

Erakunde lankideak bermatzen du behar diren instalazio eta bitartekoak dituela ikasleak gaitasunak gara ditzan prestakuntza dualeko programan aurreikusitako mailan, eta zehaztuko du gehenez zenbat ikasle har ditzakeen.

Hamabigarrena.– Erakundeak unibertsitatearekin lankidetzan segitzeko jarraipena eta ebaluazioa.

Ikasturte bakoitza amaitzean, titulazioaren ardura duen ikastegiak honako jarraipen eta ebaluazio prozedura hauek beteko ditu, erakundeak jarraitu ahal izan dezan unibertsitatearekin lankidetzan prestakuntza dualean:

- a) Baloratuko du nola bete dituen erakundeak hitzarmen hau sinatzean bere gain hartutako betebeharrak.
- b) Baloratuko du erakundearen ordezkariak parte hartze aktiboa izan duten Batzorde Mistoaren zereginetan.
- c) Bereziki, aintzat hartuko du epeak bete dituen unibertsitateari txostenak aurkeztean eta ikasleek eskatutako ziurtagiriak egin dituen.

Hamahirugarrena.– Erantzukizunak eta asegarriak.

1.– UPV/EHUk erantzukizun zibileko poliza bat dauka, bere gain hartzen dituen ikasleak prestakuntza proiektua betetzean erakundearen sor litzaketan kalteak.

2.– Erakundeko tutoreak prestakuntza proiektuan zehaztuta ez dagoen agindu edo jarraibideren bat eman, eta horren ondorioz kalteak gertatzen badira, haien erantzukizuna ez da izango, inola ere, unibertsitatearena, ez eta ikaslearena ere.

3.– 28 urtetik beherko ikasleak eskola aseguruaren babespean daude, espainiarrak izan, europarrak izan edo bizileku baimena duten atzerritarrak izan.

Era berean, UPV/EHUK EHU ikasle Asegurua dauka kontratatuta, istripuak eta osasun arreta bere gain hartzen dituen, UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztientzat.

4.– Atzerrian prestakuntza dualeko programa bat egitek, ikasleak istripu poliza bat egin beharko du, UPV/EHUK eskaintzen duen IBILI-EHU polizaren (edo kasuan eskaintzen duenaren) estalduraren parekoa daukana gutxienez.

Hamalaugarrena.– Ikasleak hilean jaso beharreko zenbatekoa.

Prestakuntza dualeko programan parte hartzeagatik ikasleek zenbateko bat jasoko dute erakundetik, lanbidearteko gutxieneko soldataren parekoa eta proportzioan dagoena beren arduraldiarekin. Erakundeak ordaindu beharko du zenbateko hori eta bete beharko ditu legean ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko afitziazio eta kotizazio betebeharrak.

Erakundeak ikasleari prestakuntza dualeko jardunagatik hilean guztira ordainduko dion zenbatekoa jasota utziko da ikaslearen prestakuntza dualeko programako irakasgai edo gai bakoitzeko prestakuntza planean edo eginkizunen planean (I. eta II. eranskinak).

Hamabosgarrena.– Ikasketa amaierako lanen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak.

Gradu edo Master Amaierako Lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikaslearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, unibertsitateak horretarako onartutako dokumentuan jaso beharko da esplizituki, eta ikasleak dokumentu hori sinatu beharko du (IV. eranskina).

Hamaseigarrena.– Ikaslearen datuen babesa.

Erakundeak prestakuntza dualean diharduten ikasleen datuak hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Hamazazpigarrena.– Hitzarmena interpretatzeko araubidea.

Hitzarmen hau administratiboa da eta, beraz, bere interpretazio eta garapenerako, dagokion antolamendu juridiko administratiboari jarraituko zaio.

Hitzarmen honek edo bera betetzeak sor ditzakeen arazoak hitzarmen honetako laugarren klausulan aipatutako Batzorde Mistoak ebatziko ditu.

Hamazortzigarrena.– UPV/EHUn beste konpromiso batzuk.

1.– Esandako guztiaz gain, UPV/EHUK honako konpromisoak hartzen ditu ikasleei dagokienez:

- a) Hitzarmen honen xehetasunen berri ematea, berei dagokien guztian.
- b) Bermatzea ikasleek bere egiten dituztela hitzarmen honetan ezartzen zaizkien betebeharrak, bai eta aplikatu beharreko arautegiak ere.
- c) Bermatzea ikasleek modu esplizituan onartzen dutela beren datuak lagatzea hamaseigarren klausulan aipatutako helburuetarako.

2.– Aurrekoaren ondorioz, UPV/EHUK erakunde lankideari helaraziko dio ikasle bakoitzak sinatutako prestakuntza proiektu(ar)en kopia.

Hemeretzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

1.– Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, sinatzen denetik hasita. Behin epe hori amaituta, beste lau urtez luzatuko da automatikoki, non eta aldeetakoren batek ez duen hitzarmena denuntziatzen berori indarririk gabe geratzea nahi duen ikasturtearen aurreko ikasturteko ekainaren 30a baino lehen. Hitzarmenaren denuntzia idatziz jakinarazi beharko zaio beste aldeari.

2.– Denuntzia idatzizkoa izan beharko da, eta ez die eragingo ordura arte egiten ari ziren jardueri, hori traba izan gabe hamargarren klausulan programa bertan behera uzteaz ezarri denerako.

Programatutako jarduerak egin ezin badira, aldeetako edozeinek eskatu ahal izango du, Batzorde Mistoaren bidez, prestakuntza dualeko programa bertan behera uztea. Halakoetan, idatzizko erabaki baten bidez adieraziko da programa bertan behera utzi dela.

Eta aurrekoarekin ados daudela adierazteko, aldeek prestakuntza dualerako lankidetzak hitzarmen hau sinatu dute, ale bitan, idazpuruan adierazitako lekuan eta datan.

IKASTEGIAREN IZENEAN

(Zuzendaritza edo dekanotzako kargua zehaztu)

(Sinadura) _____

ERAKUNDEAREN IZENEAN

(Kargua zehaztu)

(Sinadura) _____

V. ERANSKINA

20...../20__ ikasturtea

PRESTAKUNTZA DUALEKO PROGRAMAKO PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

(Ikasleak erakundearen zenbat irakasgai egingo dituen, horrenbeste proiektu bete beharko dira, ikasturtearen arabera ordenaturik)

1.– Tituluaren ardura duen ikastegia

2.– Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa

3.– Programan parte hartuko duen ikaslea:

Ikaslearen izen-deiturak:

4.– Ikasleak prestakuntza proiektua beteko duen erakundearen izena eta lekua.

5.– Prestakuntza dualeko programan landuko den irakasgaiaren izena:

6.– Prestakuntza dualeko tutorea UPV/EHU

Tutore akademikoaren izen-deiturak:

7.– Prestakuntza dualeko tutorea erakundean:

Erakundeko tutorearen izen-deiturak eta kargua:

8.– Ikasleak erakundean egingo duen egonaldiaren datak: hasiera:

(uuuu/hh/ee).....; amaiera: (uuuu/hh/ee).....

9.– Ikaslearen ordutegia erakundean:

10.– Ikaslearen arduraldia erakundean: (ordu guztira)

11.– Erakundeko tutoreak ikasleari ekainiko dion denbora: (ordu guztira)

12.– Prestakuntza programaren hezkuntza helburuak:

Ikasleak erakundean bereganatu beharreko gaitasunak

1.–
2.–
3.–
(....)

13.– Ebaluazio sistemak.

1.–
2.–
3.–
(....)

14.– Erakundean egin beharrekoen deskribapena:

1.–
2.–
3.–
(....)

15.– Prestakuntza proiektua zein hizkuntzatan beteko den erakundean:

Euskara
Gaztelania
Ingelesa
Frantsesa
Beste bat (zehaztu):

16.– Ikasleak prestakuntza dualeko programa egiteagatik hilean jasoko duen zenbatekoa:

20___/20___ ikasturtean, _____ euro hilean.

Erakundeak PFEZen atxikipena egin beharko dio, bai eta legeak ezarritako bestelako atxikipen guztiak ere. Era berean, bete beharko ditu legean ezarritako betebeharrak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko afilizazio eta kotizazioari dagokionez.

17.– Ikasleen datuen babesa.

Erakundeak prestakuntza dualean diharduten ikasleen datuak hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko.

18.– Konfidentzialtasuna.

Ikasleak konpromisoa hartzen du isilpean gordetzeko erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala, bai egonaldian zehar eta bai gero. Ikastegiak edo masterreko Batzorde Akademikoak zehaztutako kasu berezietan, titulazioaren ardura duen ikastegiak eskatu ahal izango dio ikasleari konfidentzialtasuna bermatzeko behar diren dokumentuak sina ditzan.

19.– Ikasleak honako hau adierazten du:

– Ezagutzen dituela UPV/EHUK eta erakunde lankideak prestakuntza dualeko programa bat egiteko sinatu duten lankidetzaren baldintzak, berari dagokion guztian.

– Konpromisoa hartzen duela hitzarmenean eta aplikatu beharreko arautegietan ikasleentzat ezarritako betebeharrak betetzeko.

– Baimena ematen diela UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak laga eta trata ditzaten I. eranskin honen hamaseigarren klausulan adierazten den bezala.

IKASTEGIAREN IZENEAN:

ERAKUNDEAREN IZENEAN:

IKASLEA

PRESTAKUNTZA DUALEKO
UPV/EHUko TUTOREA

PRESTAKUNTZA DUALEKO
ERAKUNDEKO TUTOREA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

Izen-deiturak.: _____

Izen-deiturak.: _____

Izen-deiturak.: _____

Data: _____

Data: _____

Data: _____

VI. ERANSKINA

20...../20 Ikasturtea

GRADU edo MASTER AMAIERAKO LANA EGITEKO ETA ZUZENTZEKO EGINKIZUNEN PLANA

(Ikaslea lana egiten hasi deneko ikasturteari dagokio).

1.– Tituluaren ardura duen ikastegia

--

2.– Prestakuntza dualeko programari dagokion titulazioa

--

3.– Programan parte hartuko duen ikaslea:

IKASLEAREN	IZEN-DEITURAK:
.....
.....

4.– Gradu edo Master Amaierako Lana egingo den erakundea edo lekua.

--

5.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren izena:

--

6.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren erakundeko zuzendarikidea, eta erakundean betetzen duen postua:

--

7.– Gradu edo Master Amaierako Lanaren UPV/EHUko zuzendarikidea:

8.– Ikasleak erakundean egingo duen egonaldiaren datak: hasiera: (uuuu/hh/ee).....; amaiera: (uuuu/hh/ee).....

9.– Ikaslearen ordutegia erakundean:

10.– Erakundeko zuzendarikideak ikasleari eskainiko dion denbora: (ordu guztira).

11.– Gradu edo Master Amaierako Lana zein hizkuntzatan egingo den erakundean:

Euskara
Gaztelania
Ingelesa
Frantsesa
Beste bat (zehaztu):

12.– Ikasleak prestakuntza dualeko programa egiteagatik hilean jasoko duen zenbatekoa:

20___/20___ ikasturtean, _____ euro hilean.

Erakundeak PFEZen atxikipena egin beharko dio, bai eta legeak ezarritako bestelako atxikipen guztiak ere. Era berean, bete beharko ditu legean ezarritako betebeharrak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko afilizazio eta kotizazioari dagokionez.

13.– Ikasleen datuen babesa.

Erakundean prestakuntza dualean diharduten ikasleen datuak hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko.

14.– Jabetza intelektual edo industrial.

Gradu edo master amaierako lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta, ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikaslearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, unibertsitateak horretarako onartutako dokumentuan jaso beharko da esplizituki, eta ikasleak dokumentu hori sinatu beharko du.

15.– Konfidentzialtasuna.

Ikasleak konpromisoa hartzen du isilpean gordetzeko erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala, bai egonaldian zehar eta bai gero. Ikastegiak edo masterreko Batzorde Akademikoak zehaztutako kasu berezietan, titulazioaren ardura duen ikastegiak eskatu ahal izango dio ikasleari konfidentzialtasuna bermatzeko behar diren dokumentuak sina ditzan.

16.– Ikasleak honako hau adierazten du:

- Ezagutzen dituela UPV/EHUK eta erakunde lankideak prestakuntza dualeko programa bat egiteko sinatu duten lankidetzaren hitzarmenaren baldintzak, berari dagokion guztian.
- Konpromisoa hartzen duela hitzarmenean eta aplikatu beharreko arautegietan ikasleentzat ezarritako betebeharrak betetzeko.
- Baimena ematen diela UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak laga eta trata daitezzen II. eranskin honen hamahirugarren klausulan adierazten den bezala.

IKASTEGIAREN IZENEAN:

ERAKUNDEAREN IZENEAN:

IKASLEA

GRADU/MASTER AMAIERAKO
LANAREN UPV/EHUko
ZUZENDARIKIDEA

MASTER AMAIERAKO LANAREN
ERAKUNDEKO
ZUZENDARIKIDEA:

Sinadura

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

Sinadura

Izen-deiturak: _____

Izen-deiturak: _____

Izen-deiturak: _____

Data: _____

Data: _____

Data: _____

VII. ERANSKINA

VENIA DOCENDI-AREN ETA LANKIDETZAREN AITORPENA

I.– Datu orokorrak.

Erakundeko tutorearen izen-deiturak:	
Erakunde lankidea:	
Ikasturtea:	

Honen bidez, nik, _____
 jaunak/andreak, _____
 (e)ko dekanoa/zuzendaria naizen aldetik, venia docendi-a ematen diot _____
 _____ jaunari/andreari, honako ikasle hauen tutorea izateko, erakunde
 lankidearen aldetik, prestakuntza dualeko proiektu hauetan:

Ikaslea	Irakasgaia edo gaia eta titulazioa
1.	
2.	
(...)	

Lekua eta data eta dekanoren edo zuzendariaren sinadura

Lekua eta data:

DEKANOA EDO ZUZENDARIA

(Sinadura)